

Gaur egungo egoera aldatu eta Bilbon bizikletaren erabilera garraiobide gisa bultzatzeko, honako hau proposatzen dugu:

BIZIKLETAREN ALDEKO KONPROMISOA

2015eko Udal Hauteskundeetan Bilboko Udalerako aurkeztuko den _____ hautagaitzak datozen lau urteetan ondoko puntuen garapena bultzatzeko eta udal aurrekontuetan berauek agertzeko konpromisoa hartuko du, Udalbatzan ordezkariaren bat izan zein ez izan:

1. 2015ean Bizikletaren Mahaia sortzea, Udalaren eta bizikletarekin zerikusia duten sektoreen arteko parte hartzea sustatzeko gune gisa (erabiltzaileen elkarteak barne), konpromiso honetan dauden puntuak abian jarri eta garatzeko.
2. Mugikortasun ziklistaren kudeaketa sistema eta bere esparrua aldatzea: Lan eta Zerbitzu-Ingurumen sailetik Zirkulazio eta Garraio sailera.
3. Bizikleta hiri-mugikortasun jasangarriaren planen barruan sartzea, oinezkoari, bizikletari eta garraio publikoari lehentasuna emateko eta konektibitate, intermodalitate eta eraginkortasunaren alde egiteko.
4. 2007ko Bilboko bizikleta-bideen Plan Berezia berrikustea eta 2015eko egoerara egokitzea. Helburua bizikleta-bideen sarea (mota anitzekoak) garatzea da, segurtasuna, konektibitatea, funtzionaltasun anitza, hirian integratzea eta erdiguneari eta auzoei zerbitzu-ematea bermatuz. Bide-sarea oinezkoen guneak kaltetu gabe garatuko da.
5. Bizikletari lehentasuna ematen dion "Calles 30" delako ekimenaren inguruko Udalbatzaren akordioa aurrera eramatea, jarraipena, seinaleztapen egokia eta hiri osora zabaltzea kontuan hartuz.
6. Bizikleta eta garraio publikoa batera erabiltzea erraztea, goiko auzoetarako irisgarritasuna errazteko. Horretarako, geltokietan eta geralekuetan bizi-aparkalekuak jarriko dira eta bizikletaren aldeko arauak ezarri.
7. Herri lanen plangintza egiterakoan bizikleta kontuan hartzea, beronen erabilera errazteko eta segurtasuna handitzeko (gune beltzei erreparatu eta deuseztatzea, seinaleztapena...).
8. Bizikletetarako aparkalekuak sustatzea, beti ere lapurretari aurrea hartzeko segurtasuna kontuan hartuz, kalean, leku publikoetan (kiroldegiak, ikastetxeak, osasun-zentroak, lantokiak...), lurpeko aparkalekuetan eta eraikin berrietarako arauak egitea.

9. Bizikletaren erabilpena bultzatzeko kanpainak egitea, hiritar guztiei eta talde jakinei zuzenduak (ikastetxeak, unibertsitateak, elkarteak...).
10. "Bilbon Bizi" zerbitzua hobetzea: gunek eta bizikleta kopurua handitu eta bizikleten udal erregistroa sortu, lapurtuz gero berreskurapena errazteko.
11. Aldundiarekin elkarlanean, aldameneko udalerriekin loturak lehenestea eta ahalbidetzea.

Puntu hauetaz gain, _____
hautagitzak:

- Maiatzaren 13an La Bolsa Udal Zentroan egingo den mahai-inguruan parte hartuko du, Bilbon bizikleta erabiltzeari buruzko proposamenak azaltzeko.
- Maiatzaren 17an ospatuko den Bizikleta Eguna 2015 ekimena lagundu, zabaldu eta bertan parte hartuko du.

Hautagitzaren izenean

Bilbon, 2015eko _____ aren _____(a)n

Sinadura eta zigilua: